# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a / Gehigarri berezia



## PAZKOAK05

AZALA: MAITENA ARANA JATORRIZKO ARGAZKIA: GOIENKARIA





gelatzu s.l.

*Zubillaga auzoa 1 OÑATI*
*Tel.: 943 71 63 22*
*Faxa: 943 78 15 51*

*Eraman dotoretasuna zure etxera*





IRURAK MARGOAK
DISEINUAK SM

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua
Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta-kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**Ondo pasau jaiak!**

Berrigara

Irizar Jauregia• Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**TESTUAK**
Irati Agirreazaldegi
Mirari Altube
Eneko Azkarate
Aintzane Irizar
Edu Mendibil

**MAKETAZIOA**
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**
Mireia Larrañaga

**KOLABORATZAILEAK**
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel Elkoroberezibar

**LEGE-GORDAILUA**
SS-50/91

**ISSN**
1130-6599

**TIRADA**
5.900 ale

**BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE**
Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgetako Udala
Bergarako Udala
Antzuolako Udala

## ALKATEAREN AGURRA / Victoriano Gallastegi



Heldu dira berriz ere Mendekoste jaiak eta, beste urteetan bezalaxe, bergarar guztiok agurtu nahi zaituztet. Urte osoa pasa dugu gehienok kezka eta ardurapean. Bazter ditzagun arazo guztiak, egun batzuetarako behintzat, eguneroko betebehar eta nahigabeak, eta gora dezagun alaitasunez beteta gure jai hauetaz. Hori da neure desioa!

Aurten, bergarar esanguratsu biren heriotzaren mendeurrenak betetzen dira: Eladio Urdangarin, 75 urte hil zela, eta Julian Gimon, 25 urte hil zela. Bestalde, nahiz eta Bergarako semea ez izan, Fausto Elhuyar famatua jaio zela 250 urte betetzen dira, eta hona ekartzen dugu egin zuenarekin Bergarari eman zaion famagatik. Eta horregatik, pertsonaia honen bizitzaren aipamena egin dugu jai-egitarauaren erdiko orrialdeetan.

Nire esker beroena jai batzordeko kideei eta ekintza ezberdinak antolatzen lagundu duten herritar guztiei eskaini diguten laguntzarengatik. Goza dezagun, beraz, bergararrok eta egun horietan guregana hurbilduko direnek, antolatu diren ekintzetan parte hartuz.

Udalaren eta neure izenean, jai zoriontsuak izan ditzazuela opa dizuet, bai bertakoei, bai kanpoan bizi zareten bergararroi, bai bisitatuko gaituzuen guztioi eta arrazoi bat edo beste dela medio, gure artean ezin egona duzuen bergarar guztioi ere bai.

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea

## ETA BARRUAN...

MENDEKOSTE JAIAK 2005

Egitaraua /4
Antolatzaileak /6
Ikuskizuna /9
Jai latinoa /10
Rocka /13
Betizu /16
Herri kirolak /19
Rocka /19
Auto igoera /22
Umeen antzerkia /25
Abdon Juaristi eta Aroztegia /26
Mackensy´s /28
Dantza sueltoa /31
Sokamuturra /32
Karaokea /35
Koadrilen eguna /36
Barrakak /38



## ERRETRATU ZAHARRA

### 'Nagixak' koadrilakoak txosnetan, 1988. urtearen inguruan

Hilario Azkargortak utzi digun argazki honetan *Nagixak* koadrilakoak ikus ditzakezue. Erretratua 1988. urtekoa izan daiteke eta hor dituzue *Nagixak*, horietako batzuk euren kamiseta koloredun historikoarekin, jaietako blusa ezagunenetakoa, zalantzarik gabe.

Beste hainbat herritar ere agertzen dira jai giroan. Ezkerretik eskumara: Joxe Larrañaga (barra ondoan dagoena), Markos Perez (alkandora koadrodunarekin), Julian Ugalde (atzetik, barra ondoan), Felipe Arantzabal eta Peio Larrañaga *Petxolo* (elkarrekin berbetan), Roman Laskurain *Watson* (atzetik, kapeluarekin dagoena), Juan Antonio Elorriaga *Txismes*, Jesus Oroiz *Rubio*, Luis Markiegi *Marki*, Iñaxio Madinabeitia, Iban Gandiaga eta Damaso Gallastegi (elkarrekin berbetan hauek ere), Andoni Elortza *Txanbolio* eta honen atzean bi neska: Karmele Prieto (erdi ezkutatuta dagoena) eta Ester Garcia (jertsea sorbaldan duena).






# HORTZ KLINIKA

Silvana Caviglia doktorea
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA

Jai zoriontsuak Bergarar guztioi!

ASEGURUAK
·Sermesa
Pakea
Grupo Eroski
·Ibersalud Globalcard
Aegon
Asepeyo
·Mapfre
·Fremap
·Ocaso
·Azkaran
·Previsora

EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza 13

**20:00** Jaien hasiera, etxafuegoak jaurtitzea eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.



BITORIANATXOREN JAITSIERA.

Udal Musika Bandakoei, Elektrotuna taldekoek hartuko diete lekukoa. Iluntzean, Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada eta Deskontrol musika taldeekin.

**23:00** PIXPILA DISKO BUSAK festa-giroa ekarriko du San Martin plazara. Drag-Queenak, gogoak, DJak... Zatoz herriko plaza diskoteka nola bihurtzen den ikustera!

## Zapatua 14

**09:00** XXV. Haur eta gazteen PLASTIKA-LEHIAKETA, Beart Bergarako Arte elkarteak antolatuta, Bolu kaleko egoitzan.

**10:00** DIANA Bolutik. Iosu eta Iokin soinujoleak. Labegaraietatik, Kobok dultzaineroak. Oxirondotik, Udal Txistulari Banda. Dianaren ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.

**11:00** ATLETISMOKO froga konbinatuak Agorrosingo kirol gunean.

**11:30** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan, Iosu eta Iokin trikitilariek alaituta.



BAKAILAO LEHIAKETA ZAPATUAN.

**13:00** Haur eta gazteen plastika-lehiaketako SARI BANAKETA, Beart Bergarako Arte elkartearen egoitzan (Bolu kalea 49).

**16:30** Yarleku taldearen *Numenak* HAURRENTZAKO KALE ANTZERKIA San Martin Agirre plazan.

**17:45** Haurrendako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

**18:30** Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako gaiteroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.

**20:30** MCKENSY'S Clan Band taldekoak Eskoziatik etorriko dira bisitan, propio Bergarako Pentekosteetara. San Martin plazan itxarongo dizuete.

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Kloakao, Vhäldemar, Black Sheeps eta Obligaciones taldeekin.

Garaje Murillo
Auto konponketak orokorrean
JAI ZORIONTSUAK HERRITAR GUZTIOI!
EUROTALLER SERVICIO
Leizeaga, 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49 BERGARA
Ondo pasau jaiak!

## EGITARAUA

**23:00** DANTZA LATINOEN Pentekosteetako lehenengo lehiaketa San Martin plazan, eta ondoren DANTZALDIA Montesblancos taldearekin. Eman izena Bergarako Kultura-etxean maiatzaren 6a baino lehen, eta kanporatu dantzarako grina!

## Domeka 15

**08:00** SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek girotuta. Ondoren, ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.
**10:00** Euskadiko banakako XAKE TXAPELKETA Ipintza II institutuan.
**10:00** LXX. Pentekoste Saria TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzotik.
**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal korporazioarekin, eta Udal Musika Bandaren eta Txistulari Bandaren laguntzarekin.
**12:00** XXVIII. Euskadiko DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 15 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Abarka dantza elkarteak antolatuta. Kanporaketa saioa. Lehenengo 12 bikoteak sailkatuko dira arratsaldeko saiorako.
**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.

**Egitaraua:**
*Cántame un pasodoble.* C. Cano.
Konponketak: A. Gz. Chirlaque
*La belle Héléne* (Obertura). J. Offenbach
*Euskal Herria kantuz.* A. Gz. Chirlaque
*Forrest Gump* (Soinu banda). A. Silvestri
*Jericho (Fantasia).* B. Appermont
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

**16:00** Haur eta gaztetxoentzako ESKULAN TAILERRAK Xabier Maria Munibe plazan. Zatoz, eta itxuraldatuta irtengo duzu! Aurpegi margoketa eta ile apaindegia, tatuaia tailerra, argazki digitalaren gunea, globoflexia...
**16:00** XAKE AZKARREKO taldekako partiden txapelketa, Ipintza II institutuan.


SOKAMUTURRA HERRIKO KALEETAN.

**17:00** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Udal pilotalekuan.
**17:30** XXVIII. Euskadiko DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA, 15 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan. Udal Txistulari Bandak eta Trikitilariek lagunduko dute.
**19:30** *Katxi batxe de cuchina,* publiko osoari, eta batez ere sukaldaritza gustuko dutenei, zuzendutako KALE ANTZERKIA Xabier Maria Munibe plazan.
**23:00** DANTZALDIA San Martin plazan, Tarantella taldearekin.

## Astelehena 17

**08:00** SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalean, Elgoibarko dultzaineroek eta Incansables txarangak animatuta. Sokamuturraren ondoren, HAMARRETAKOA San Martin plazan. Txorizo pintxoak San Joxepe elkartekoek prestatuta. Ordu berean, KOADRILEN ELKARTZEA San Martin plazan, eta kalejira Xapre eta Zarra eta Josu eta Jokin trikitilariekin.
**10:30** PLATER TIROA Gorlako Irubiden.
**10:30** Mariachi Garibaldi taldearekin DOINU MEXIKARRAK Bergarako kaleetan. Animatu zaitez Espaloira eramango zaituen KANTU-JIRAN parte hartzera!
**12:00** Koadrilen aurkezpena eta JOKOEN HASIERA San Martin plazan. 16 urtetik 102 urte artekoek parte hartu dezakete. Jokoak: txerri harrapatzea, asto karrera (4 hankadun astoak antolatzaileek ekarriko dituzte. 2 hankadunak koadrilen kontu), sokatira, zaku karrera, txingak (25 kilo. 50 kilokoekin aritzeko esne-zopa gehiago hartu beharra dago!).
**12:30** KONTZERTU MEXIKARRA Espaloian, Mariachi Garibaldi taldearekin.
**14:30** HERRI BAZKARIA: paella erraldoia. Bazkalostean, lo-kuluxkarako garaian, Incansables txarangakoek, eta Xapre eta Zarra eta Iosu eta Iokin trikitilariek lo ez hartzeko kantak joko dituzte. Txartelak salgai daude 8 eurotan Kortazarren, Pol-Polen eta San Joxepe elkartean. Bazkal ostean, EUSKAL KANTUEN saioa izango da.
**17:00** JOKOAK berriro, bergararrak sasoian gaudela erakusteko, musikaz lagunduta.
**18:30** Pazkoak 2005, MISS ETA MISTER JATOR lehiaketa. Saria: 150 euroko erosketa txartel bana Bedelkarreko dendetan gastatzeko.
**19:00** Koadrila irabazleari SARI BANAKETA. Saria: asteburu bateko egonaldia Nafarroako landa-turismoko etxe batean.
**19:00** BERGARA HIRIA pilota txapelketako finalak Bergarako Udal pilotalekuan.
**19:30** KALEJIRA Xapre eta Zarra eta Iosu eta Iokin trikitilariekin. Nekatzen direnean Incansables txarangakoek hartuko diete erreleboa, hauek ez dira nekatzen-eta.
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem eta Skunk taldeekin.
**23:00** ERROMERIA San Martin plazan Tapia eta Leturia taldearekin eta Iokin Otamendi dantzariarekin.
**23:00** CAMP DANTZALDIA Espoloian, Nueva Alaska taldearekin.

## Martitzena 18

**08:00** SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalen, Elgoibarko dultzaineroen eta Incansables txarangaren animazioarekin.
**11:00-14:00** Pentekosteetako kartel-lehiaketara aurkeztutako KARTELAK ERAKUSGAI izango dira, Udaletxeko arkupeetan.
**11:30-13:30** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.
**11:30-13:30** Haurrendako JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Gaztelu puzgarriak, kars-ak,... izango dira.
**12:30** HERRI-KIROLEN ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Ernesto Ezpeleta *Bihurri,* Jose Inazio Flores, Juan Joxe Unanue *Goenatxo II.a* eta Ana Berasategi. Aizkoran, harri jasotzen, txinga eramaten, trontzan, lastoa altxatzen... arituko dira. Aurkezle lanetan: Gabixola.
**16:00** UMEENDAKO JOLASAK San martin plazan: pottokak, zezentxoak...
**17:00** Profesionalen PILOTA PARTIDUAK Udal pilotalekuan.
**17:00-20:00** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira.
**17:00-20:00** Haurrendako JOLAS PARKEA Ipintza II-ko patioan. Jolas parkea ixterakoan, Incansables txarangaren laguntzarekin, denok San Martin plazara kalejiran.
**20:15** GAZTETXOENDAKO KONTZERTUA Betizu taldearekin San Martin plazan. Mugitu gerri hori!
**21:30-24:00** EUSKAL KARAOKE ETA DJ FESTA San Martin plazan, Txatxilipurdi taldearekin.
**24:00** BITORIANATXOREN IGOERA eta agurra. Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan Incansables txarangaren laguntzarekin.

LAGUN GARAJEA
Tailer profesionala
Mekanika orokorra
Ondo pasau jaixetan!
Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20


Ion Murgizu margoak
Margolanak orokorrean • Margo dekoratiboa • Margo industriala
ONDO PASAU JAIXETAN!
Esozia etorbidea 24, 2. behea • SORALUZE • 943 75 13 24 / 652 777 030 • iiion@euskalnet.net

ANTOLATZAILEAK

# Herritar talde batek jaietarako ekitaldi sorta antolatu du

## Joan zen udan sortu zen talde hau, eta euren helburua da herriko giroa suspertzea, Pazkoetan eta urte osoan

AINTZANE IRIZAR

**Iazko Pazkoetan herri bazkariak izan zuen arrakasta eskasa ikusita, herriko giroa suspertzeko helburuarekin talde bat sortu zuten joan zen udan.**

Jende gutxi eta giro eskasa: horixe izan zen iazko Pazkoetako herri bazkariaren balorazioa. Hori ikusita, bazkariaren antolatzaileek, Xamatz dantza taldeak eta Jardunek, batzar baterako deialdia egin zuten. Hantxe elkartu ziren herriko hainbat koadrilatako lagunak, baita elkarte eta talde batzuetako ordezkariak ere.

Batzar hartan erabaki zuten zerbait egin beharra zegoela herriko giroa suspertzeko; halaxe sortu zen talde hori. Izenik ez dauka taldeak, baina lanerako gogorik eta kemenik ez zaie falta.

Pazkoetako giro eskasaren ondorioz sortu zen arren, taldearen helburua da herriko giroa suspertzea, eta horrek ez dauka datarik. Hau da, ez dira Pazkoetarako bakarrik sortu, ez dira Pazkoak euren helburu bakarra. Gogoratu, bestela, Errege bezperan antolatu zuten ekitaldi mordoa.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Talde honen lehendabiziko helburua da, esan bezala, herriko giroa berpiztea; horrekin batera, baina, eta ez garrantzi gutxiagorekin, herritarren parte-hartzea lortzea ere badute helburu. Horrek ez du esan nahi eurek antolatzen dituzten ekitaldietan jendeak parte hartzea nahi dutenik bakarrik, baita antolaketa lanetan ere. Horrela, nahiz eta taldean hamar bat lagunek diharduten, antolatzen dituzten ekitaldietan askoz jende gehiagok jarduten du lanean; horietako batzuk norbanakoak dira, eta beste batzuek, berriz, talde edo elkarte moduan parte hartzen dute.

> **Talde honen helburu bakarra ez dira herriko Pazko jaiak**

> **Nolabait, Udalaren aholkulariak direla esan dezakegu**

**UDALAREKIN ELKARLANEAN**

Jaietako astelehena izan da euren ardura nagusia: Koadrila Eguna astelehenean izango da aurtengoan.

Ekitaldien ardura guztia, baina, ez du taldeak bere gain hartzen; Udalarekin elkarlanean jardun dute, eta Udalak finantzatuko ditu ekitaldiok. Gainera, egitarau ofizialean txertatu dituzte ospakizunok.

Taldeari izenik ez jartzea ere ez da kasualitatea izan; ez zaie ahaztu izena jartzea. Kontua da ez dutela nahi elkarte bezala eratzea, ez dute-eta diru kontuekin eta horrelakoekin hasi nahi. Nolabait, Udalaren aholkulariak direla esan dezakegu; Udalaren eta herritarren arteko zubi lana egin nahi dute. Eta horrekin lotuta, bukatzeko, bi gauza esan behar ditugu: batetik, adin guztietako jendearendako ekitaldiak antolatzen saiatzen direla, eta ateak zabalik dituztela herriko giroa suspertzeko lan egiteko gogoa duen guztiarendako.




EDU MENDARIL

Horra hor taldeko kideetako batzuk, jaietako kartelarekin.

ION AUTOAK
AUTOS ION
CITROËN






CITROËN C4
Bost izarretako autoa

Amillaga 36 • Bergara • Tel.: 943 76 47 49/ 73



Eraikuntza • Altzariak

MADERAS IPIÑARRI, S.L.

• INSIGNIS pinua zerratu eta lantzen dugu sektore hauendako: altzariak, eraikuntza, aroztegia eta enbalajeak.

• ALERTZEA, DOUGLAS IZEIA, HARITZA eta beste batzuk ondorengo sektoreendako: birgaitzeak, eraikuntza eta aroztegia.

Aroztegia • Enbalajeak
www.euskalnet.net/ipinarri

Ibarra z/g • 184 posta-kutxa
20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 15 93
ipinarri@euskalnet.net

edertu



sarrera berria (kruz gallastegi)



edertu

masterreka 9-11
tel.943765879

barrenkale 23
tel/fax.943762965

ZORIONAK GUZTIOI !!




Salmenta arduraduna: IÑIGO ALMORZA.
Poltsikoko Tel.: 656 78 12 04

GURE MARKAK:
NISSAN
GALLOPER
MITSUBISHI MOTORS

BIGARREN ESKUKOAK:
- Autoak.
- Furgonetak.
- Lur orotarikoak.

ELURAUTO S.L.

ETA, GAINERA:
GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIRUA

T. Blanco

- 28 urte zuen zerbitzura.
- Autoak eta kamioiak konpontzeko tailerrak.
- BRIDGESTONE zerbitzu ofiziala.





# Etxerako ederrena, *Zanguitun*

**deco-tex**
**ZANGUITU alfonbrak**
Herri lagunak 4 **BERGARA** • Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurrira
- Funda nordikoak
- Edredoiak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

**ZANGUITU margoak**
Irala z/g **BERGARA** • Tel.: 943 76 19 54

**IRU margoak**
Araba etorbidea 3 **ARRASATE** • Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Moketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.



**Saunier Duval**

**DICOMAN S.L.**

**San Lorentzo 21**
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu ofizial baimendua
**Tel.: 943 76 06 61**

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**

IKUSKIZUNA

# Musika eta argiak drag queen eta go-goen eskutik

San Martin plazan
**Egubakoitza**
**23:00**
Diskoteka bihurtuko dute plaza drag queenek eta go-goek DJaren laguntzarekin

## Pixpila Disko Busak diskoteka bihurtuko du San Martin plaza drag queen, go-go eta DJaren laguntzarekin

MIRARI ALTUBE

**Musikaz gainezka eta itsutzeko adina argirekin hurreratuko da San Martin plazara Pixpila Disko Busa. Ez da, baina, bakarrik etorriko: hiru drag queen, bi go-go eta DJa ekarriko ditu autobus laruak gainean.**

Jaiak dantza giroan eta guztiz animatuta has ditzagun, Pixpila Disko Busa etorriko da San Martin plazara. Argiak, musika zaratatsua, eta dantzari ikusgarriak ekarriko ditu laru koloreko autobusak gainean.

### GORPUTZA ASTINTZERA

Diskotekako dantza doinuekin etorriko da Pixpila izeneko autobus larua egubakoitzean San Martin plazara. Gainean, dantzan egiten nekatzen ez diren bi go-go eta hiru drag queen ikaragarri ekarriko ditu. Eta ezin ahaztu musika jarriko duen DJa; izan ere, bera izango da herritarrak gorputza astintzera animatuko dituena. Musika dantzagarria, zaratatsua, elektronikoa eta bizia jarriko du autobuseko gidariak, DJak, eta, musikari lagun egiten, mila kolore dituzten argi distiratsuak. Ahoa zabalik eta begia gainetik kendu ezinik geratuko da bat baino gehiago drag queen ikusgarriak antzematerakoan. Go-goak, ostera, arroparik sexienak jantzita hasiko zaizkigu dantzan. Eurek ezarriko dituzten erritmo eta pausoei jarraitu besterik ez dugu izango geuk ere sekula baino hobeto dantzan egiteko.

2003an sortu zuten Pixpila Disko Busa taldea, eta oraindik proiektu gaztea izan arren, Euskal Herriko jai asko girotu ditu dagoeneko. Erromeri giroa beste egun baterako utzi, eta ikuskizuna eta musika bateratzen dituen proiektua dastatuko dugu aurtengo Pazko jaietan. Gorputzean dantza gogoa daukanak badaki nora hurreratu behar duen.

**Dantzan egiten nekatzen ez diren bi go-go eta hiru drag queen ikaragarri ekarriko ditu laru koloreko autobusak**



KALEAN

Musika elektroniko eta biziarekin dantzan egin nahi duenak go-goek eta drag queenek ezarritako pausoei jarraitu beharko die.





Km 0
kostu prezioan

Stock-aren likidazioa

•Toledo •Córdoba •Ibiza •Altea

Seat IBIZA 1.4 75 cv
2 Airbag. ABS
Llantak
Klimatizadorea
Irrati-kasetea
10.500 €

(PREVER PLANA BARNE)

Toledo TDi 110 Sport
ABS, ESP, 4 Airbag
Klimatizadorea, Llantak
Pintura metalizatua
Jarleku deportiboak
17.400 €

girogailua, 6 aire-zaku...

SEAT ALTEA BERRIA

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.
Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxa: 943 76 47 51

DECOLETAJES BIOK

Prezisiozko dekoletajea era guztietako materialetan

ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!

Amillaga 6 • 286 posta-kutxa • 20570 BERGARA Gipuzkoa • Tel.: 943 76 53 29 • Faxa: 943 76 41 05

JAI LATINOA

# Salsa, merenge eta batxata dantzak plazan

**Hamahiru bikotek jardungo dute eta kanporatze sistema jarraituko da; Montesblancos Orkestrak alaituko du dantzaldia**

San Martin plazan
**Zapatua 23:00**
Hamahiru bikote nor baino nor arituko dira erritmo latindarrekin dantzan

EDU MENDIBIL

**Pazkoetako nobedadeetako bat zapatuan jokatuko den dantza latindarren lehiaketa izango da. Hamahiru bikote izango dira lehian San Martin plazan, 23:00etan hasita.**



ARTXIBOA

Dantzarako gertatutako gunean arituko dira partaideak, Montesblancos Orkestraren doinuak jarraituz.

Partaideek salsa, merengea, txa-txa-txa eta batxata dantzatzen zein abilak diren erakutsi beharko dute. Hamahiru bikote lehiatuko dira. Ez da Bergarako inor animatu eta partaide guztiak kanpokoak izango dira: Jane Herrera eta Graciela Alvarez (Eibar), Raul Gil eta Hayet Jauregi (Urnieta), Maite Bayona eta Rafa Diego (Eibar), Laura Rodrigues eta Patricia Morga (Urnieta), Itziar Lopez eta Sergio Jorde (Donostia), Juan Carlos Rodriguez eta Rosa Galan (Eibar), Jesus Raul Fernandez eta Esperanza Gallego (Zumarraga), Jorge Belastegi eta Itziar Villanueva (Bilbo), Agustin Rodriguez eta Nadia Nuñez (Eibar), Manu Cruz eta Agus Blazquez (Arrasate), Nerea Lasa eta Araitz Jauregi (Urnieta), Amaia Zozaya eta Fernando Vidal (Donostia) eta Tamara Torre eta Soraia Raposo (Urnieta). Irabazleendako sari potoloak daude: bikote txapeldunak 600 euroko saria jasoko du, bigarren sailkatzen direnek 300 euro jasoko dituzte eta, azkenik, hirugarrenek, Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria.

Epaimahaian Mikel Lasa, Leticia Gonzalez eta Marian Barragan izango dira, saloiko dantzen irakasleak hirurak. Monika Belastegi kazetari bergararrak aurkeztuko du.

**Bergarako bikoterik ez da animatu eta partaide guztiak kanpotarrak izango dira**

**Mikel Lasa, Leticia Gonzalez eta Marian Barragan saloiko dantzen adituak izango dira epaimahaian**

**MONTESBLANCOS ORKESTRA**

Bikote guztiak batera arituko dira dantzan, San Martin plazan, eta Montesblancos Orkestrak alaituko du dantzaldia. Bikote bakoitzak bere dortsala izango du eta noizean behin epaimahaiak hau edo bestea kanporatuko du, finalera bi bikote onenak iritsi arte.

BANAKETAK ORIXONDO
Tel.: 943 76 28 81
BERGARA

*Espezialitateak:*
• Urdaiazpiko iberikoak
• Paletak
• Kordobako urdaiazpikoak
• Solomoak
• Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
• Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
• Erriberako esparragoak
• Pikillo piperrak
• Guardiako Luis Alegre ardoak

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

TORBER
ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!
Azkarruntz auzoa • 190 posta-kutxa • BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 12 84 - 943 76 16 46 • Faxa: 943 76 10 41

# UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21





- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak











**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



# AGIRRE
## HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo eta Silvia Romero laguntzaileak eta
Ainara Marquez harreragilea





- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Inplanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
Tel.: 943 76 00 23
**09:00-13:00 eta 17:00-21:00**

AEGON aseguroak
RPS: 139/01






- Gosariak
- Bokatak
- Egunkariak
- Bertako opilak
- Kafetegia
- Terraza

EGUNERO GOIZEKO 06:30ETIK ZABALIK

ONDO PASAU JAIXAK!

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

**Obradorea:**
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

**OGIZUN**
koop. elk.
**okindegia**

**ELUSU ERAIKUNTZAK**

K21 KALITATEA

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak

Teilatuak
Sukaldeak
Bainuak
Fatxadak




**Baserri eta jauretxeen** erreformetan **eta txaleten eraikuntzan** espezializatuta gaude

**Ondo ibili Pazkoetan!**

**Arruriaga 5**
**943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45**

ROCK

Bideberrin

**Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean**

Estilo askotariko musika doan

# Askotariko musika, doan, Bideberriko txosnetan

**Bost egunetan hemeretzi talde, estiloz ezberdinak, ahalik eta jende gehien erakartzeko Bideberrira. Taldeen jatorriari dagokionez, Debagoienetik, Euskal Herritik eta Espainiatik etorriko dira.**

**13**
**egubakoitza**

Punka, rocka eta trikitia: nahasketa bikaina jaietako lehenengo egunerako. Sharon Stoner oñatiarrek ipiniko dute rock stoner pisutsu eta, tarteka, melodikoa; Des-kontrolek eta Harrikadak, oi eta punk doinuak, eta Imuntzo eta Belokik dantzara animatuko dituzte batutakoak.

**SHARON STONER**

Mikelek (gitarra), Egoitzek (bateria) eta Iñigok (baxua eta ahotsa) osatzen dute taldea. Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketako irabazleak dira. Lehenengo disko luzea izango dena grabatu berri dute. Oñatiarrek rock stoner bortitz bezain melodiatsua eskainiko dute (Kyuss, Queens of the Stone Age, Nirvana, Foo Fighters, Faith No More, Dut, Kashbad, Lisabö, Neubat… dituzte gustuko), erakutsiz, orain arteko emanaldietan bezala, hiru lagun nahikoa direla ikuskizun ederra eskaintzeko.

**IMUNTZO ETA BELOKI**

Erromeria eta trikiti munduan aurkezpenik behar ez duen bikotea osatzen dute Imuntzok eta Belokik. Azkenekoz, Urolako trikiti pieza zaharren bilduma osatu dute, *Ganbaran bai (Urolako trikitixa)* izeneko diskoan. Urolako zenbait trikitilari historikok sortutako piezak bere garaian berezkoa zen moldean jo eta batbatekotasuna gorde nahi izan dute disko horretan. Trikiti eta panderoaz gain, oso ohikoak ez diren musika tresnak sartu dituzte: botila, trikitiaren maleta, tinbalen kaxa… Guztira, 23 abesti fresko eta dantzagarri, erromeria zaleen gozamenerako. Iaz kaleratu zuten diskoa, eta hango piezak eta kalean dituzten beste diskoetakoak eskainiko dituzte egubakoitzean. Dantzarako gertu?

**DES-KONTROL**

Arrasatekoak punk-oi! erreferentzia nagusia dira Debagoieneko kaskamotzendako. 1996an sortu zuten taldea eta 1998tik hona lau CD kaleratu dituzte; azkena, Tolosako Hell Beer Boys taldearekin batera. Peter (bateria), Markel (gitarra), Aritz (ahotsak), Oier (baxua) eta Osoronek (gitarrak) sortu zuten taldea, baina azken honek utzi egin du Evaristoren Gatillazorekin jotzeko. Haren ordez, Hodei sartu da (baxua). RIP, Vomito, Puñetazo eta Zakarra bezalako taldeen bertsioak egiten dituzte, baina eurek sortutako abestiak ere jotzen dituzte. 2002an argitaratu zuten *Behin eta berriz* iraupen luzekoa da beren lanik nabarmenena. Disko hau Madrilgo Potencial H.C. etxeak argitaratu zuen eta lehen edizioa, 1.500 kopiarekin, agortu egin zen. Zalantza barik, ibarreko kaskamotzen topagune izango da Bideberri egubakoitzean.



GOIENKARIA

**Sharon Stoner da une honetan Debagoieneko talderik jarraituenetakoa. Gaur Bergaran izango da.**

**HARRIKADA**

Bergarako punk talde berri honek (2004ko Aste Santuan sortu zuten Jokinek, Raulek, Mikelek eta Balzak) Bergarako Gaztetxearen laugarren urteurreneko ekitaldietan egin zuen debuta. Kontzertu hartarako bi aste lehenago elkartuak ziren eta emanaldiaren ostean gustura geratu zirenez, taldearekin segitzea erabaki zuten. *Kale gorrian, Independentzia, Ten cuidado…* dira haien abestietako batzuk. Bertsioak eta eurek sortutako kantak eskainiko dituzte.

IZAMUR Industrias
CNC mekanizatuak
Telleria kalea • Pab. B-3 B-4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 18 67 • Faxa: 943 76 53 81
DQ certificación
Zorionak bergararroi!

ZubeR®
Zuber
• Metal gogorrezko herramintak ZB®
• Hotzeko estanpaziorako metal gogorrezko matrizea®
Tel.: + 34 943 76 26 78
Faxa: + 34 943 76 56 79
www.adegi.es/zuber
Leizeaga kalea 8
112 posta-kutxa
BERGARA
BVQI ISO 9001
UKAS QUALITY MANAGEMENT
Jai zoriontsuak bergararroi!

ROCK

**14**
**zapatua**

Punka, rocka, heavy metala, 60ko eta 70eko hamarkadetako rock klasikoa... Zapatuan ere denetarik izango da Bideberrin.

**BLACK SHEEPS**
Bergarakoak dira eta 60-70eko hamarkadetako musika dute gustuko. Talde batzuk aipatzearre, Led Zepelin, The Rolling Stones, The Who, Dictators, Radio Birdman, Jonny Thunders, Iggy and The Stooges..., oro har, rock and rola, beraz, nahiz eta soul eta bluesa ere oso maitagarri dituzten.

Orain dela hiru urte sortu zuten taldea honako hauek: Aritz Oregi (bateria), Julen Pascual (gitarra), Mikel Otaegi (gitarra) eta Joseba Lasa (baxua eta ahotsa). Taldea sortu berri, *Astindu* fanzineak argitaratu zuen bilduman grabatu zuten abesti bat. Hainbat emanaldi egin dituzte han eta hemen, tartean, Bergarako jaietan. Harrezkero, baina esperientzian irabazi dute eta zapatuan igarriko zaie hori zuzenekoan.

**KLOAKAO**
Torrelavegako talde beteranoenetakoa da Kloakao; izan ere, 1992. urtetik dabiltza jo eta ke. Kantabriako herri horretakoei portugaldarrak deitzen diotenez, portugesez abesten hasi ziren erdi txantxetan eta gaur arte.

Abestien etengabeko erritmo aldaketak, melodiak eta hitzak —oso garratzak, konprometituak, salaketakoak eta gizarte kritika egiten dutenak— dira nabarmentzekoak. Punk eta hard core estiloko abesti laburrak egiten dituzte eta oso zuzeneko bortitza dute. *Os mais brutais* (1995), *Vehículo Longo* (1997), *Obrigado* (2000) eta *Cuzao de Galinha* (2002) dira orain arte kaleratu dituzten diskoen izenburuak.

**VHÄLDEMAR**
Heavy metal europarraren ohiko soinuetatik haratago, Manowarren jarrera ausarta eta Gamma Rayren melodia izugarriak uztartzen dituzte, musika indartsu bezain teknikoa eginez. Bizkaitarrak dira, Barakaldokoak, eta 90eko amaieran sortu ziren.

Disko bat dute kalean, *Fight To The End* izenburukoa, 2002ko martxoan argitaratua. Ingelesez abesten dute. Iron Maiden, Manowar, Judas Priest, Black Sabbath..., hau da, heavy talde klasikoak dituzte gustuko eta, horiez gain, Beethoven-en eragina ere aitortzen dute. Blind Guardian edo Stratovarius-en izenak ere aipatu izan dira haien aitaponteko moduan. Betiko heavy zaleek zapatuan dute zita.

**OBLIGACIONES**
Basatia, freskoa, zikina, zuzena, azkarra, bortitza..., atzizki horiek jar diezaiokegu talde gasteiztar honek egiten duen rock and rolari edo punk-rock garaje azkarrari. Ramones eta The Stooges dira haien erreferentziako taldeak, hortaz, dena esanda dago egiten duten musikaren inguruan.

Disko bat dute kalean, *Prueba a gritar, prueba a llorar* izenekoa, orain dela hiru urte argitaratua eta besteak beste, Rory Gallagherren *Big Guns* eta Cicatricen *Inadaptados* abestien moldaketak jasotzen dituena.


GOIENKARIA
Bergarako Black Sheeps taldekoek 60ko eta 70eko hamarkadetako rock and rola eta soula dituzte gustuko.

## Baita domekan eta martitzenean ere

**Domekan eta martitzenean ere antolatuko dituzte musika emanaldiak Bideberrin. Txosna batzordeak antolatuko ditu, gainerako egunetarako Udalak prestatutako egitaraua osatze aldera. Bi emanaldi izango dira. Domekan, 22:30ean hasita, Potemkin, A piko y pala, Extorsion eta Rotten Teenagers taldeek joko dute. Lehenengoa Oñatikoa, eta Danbakako finalista; beste hirurak, Bergarakoak. Rocka, punka eta hard corea domeka gauerako. Martitzenean, berriz, Txinaski, Middle Finger eta Azkaiter Pelox bakarlari bergararra izango dira, 22:00etan.**


Potemkin oñatiarrek domekan joko dute Bideberrin. GOIENKARIA

ALTUBE tailerrak SM

BVQi ISO 9001 UKAS QUALITY MANAGEMENT

ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA

*San Lorentzo poligonoa - Urarte 22*
*94 posta-kutxa - BERGARA*

ZORIONAK DENOI!

*Tel.: 943 76 22 74*
*Faxa: 943 76 04 99*

ibili
1942a ezkero

San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net



*Zorionak bergararroi!*

ROCK

# 16 astelehena

Musika gogorra eta rocka, eta ska doinuak. Horixe asteleheneko nahasketa bikaina. Geldi geratzen dena…, etxera!.

**SKUNK**
Zazpi lagunek osatzen dute Hendaiako Skunk taldea. Punk doinuak erabiltzen dituzte ska musika azkartzeko eta ska doinuak punk energia bideratzeko. Hortaz, ska eta punk doinuak tartekatzen dituzte abestietan, haize instrumentuei eta gitarren riff-ei protagonismoa emanez. Dantzarako, parrandarako eta, batez ere, zuzenean ikusteko oso aproposak dira, musikak ez ezik, darabilten hitz konprometitu bezain dibertigarriak asko laguntzen dutelako. Bost disko dituzte, azkena, *Kinki* izenburukoa 2002an argitaratua.

**ABY-KEM**
Bergarakoak dira, lehengo AK-47, eta honako hauek osatzen dute taldea: Gordo (bateria), Totx (baxua), Tali (gitarra), Xarti (gitarra) eta William (ahotsa). Heavy metal klasikotik abiatuta, trahs eta metaleko joera berrietako soinuak ere erabiltzen dituzte. Machine Head eta Chimaira dira euren erreferentzia talde bi. Udan CDa grabatzeko asmotan dabiltza. Bitartean, kaña, zarata eta metal doinuak maite dituztenek, astelehenean dute zita Aby-Kem taldearekin.

**SAGARROI**
Iñigo Muguruzaren taldeak bi disko argitaratu ditu orain arte: *Meatzaldea* (2001) eta *Euria ari duela* (2003). Biak ala biak, estiloz ezberdinak. Lehenengoa, musikari dagokionez, gogorragoa, hard-coretik gertu (Hard-Onds, Poison Idea); bigarrenean, ostera, ska-core-rako itzulia egin dute, Joxe Ripiau (Muguruzaren aurreko proiektua) taldearen soinura hurbilduz. Lau lagunek osatzen dute taldea: Asier Ituartek (tronboia), Carlos Zubikoak (baxua eta koroak), Gorka Baskaranek (bateria) eta Iñigo Muguruzak (gitarra eta ahotsa). "Amnesiaren kontrako bira" egin berri dute martxoan Alemanian barrena. Astelehenean Bideberrin egongo dira. Ziur gaude: dantzan jarriko dituzte batutakoak.


GOIENKARIA
Bergarako Aby Kem taldeak musika *kañeroa* eskainiko du.


GOIENKARIA
Iñigo Muguruzaren Sagarroi taldeak ska-core doinuak ekarriko ditu.

**HOLY SEEP**
Rocka egiten dute Leongoek. Gitarrak gogor astinduz eta riff-ak behin eta berriz errepikatuz, soinu zuzen bezain bizia ateratzen dute, kantuen letren bezalakoak. Disko bat dute kalean, iaz argitaratua eta *Someday's Too Late* izenekoa. Entzuterakoan, berehala antzematen zaie Dictators, Stooges edo Hellacopters talde ospetsuen eragina, eta gustuko dituzten taldeen artean daude Datsuns, Supersuckers, Sin City Six, Cramps, Misfits, Ramones eta batik bat Deadbolt.
Zuzenean asko irabazten dutela diote entzun dietenek. Thin Lizzyren *Ode to Blackman* abestiaren moldaketarekin amaitzeko ohitura daukate. Halaxe izango da astelehenean ere?

## Musika gotikoa eta technoa Jamen

**Bi musika jaialdi antolatu dituzte Jam aretoan jaietarako: egubakoitzean, 20:00etan, rock kontzertua Lacrimosa eta Gothminister taldeekin. Lacrimosa bikoteak gotikoa, opera rocka…, egiten du. Sarrera: 20 euro. Zapatuan, bestalde, techno jaia izango da 01:00etan hasita: Kike Pravda *Psychoskunk*, Trampas *Revolution*, Ima *Txillaut*, Manu *Eibar*, Fi *Tritone prod*, Sweeter *Invader-Madrid*, Patxi *BW-Donostia*, Angel *Kogollo Crew*, Juanma *Go Jam*, Alain *Elektronitxe* eta Kaiet *Go Jam*. Ondoren, after jaia Go Jamen, bertako Ibai & Unairekin. 15 euro, koparekin.**


Lacrimosa Jamen izango da gaur, egubakoitza, Gothminister-ekin.

Zuri beltz Margoak

**Barnealde eta kanpoaldeen erreforma**
**Pintura zerbitzu osoa**

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

Ondo pasau jaixetan!

"EGUZKI - ALDE" S.L.

Zerrategia

Labegaraieta • Tel.: 943 76 11 06 / 943 76 00 80

**Ondo ibili jaixetan!**

MUSIKA

# Betizu Taldea aldatuta eta disko berriarekin dator

**Boskotea izan beharrean laukotea etorriko da, eta disko berria ekarriko dute besapean, 'Gazteok'**

San Martin plazan

**Martitzena 20:15**

Betizu Taldeak paregabeko kontzertua eskainiko du gaztetxoek dantzan egin dezaten

MIRARI ALTUBE

**Aldaketa askorekin etorriko da Bergarara Betizu Taldea. Taldekide berriak emango dion indar berriarekin eta disko berriko abestiak kantatzeko gogoz. Gertatu zaitezte, gazteok!**

Zeinek ez du ezagutzen BT? Euskal Herriko talde ezagunena da gaztetxoen artean, eta martitzen ilunkaran gure artean izango ditugu batzuen gozagarri eta beste batzuen eromenerako.

**HIRUGARREN TALDEA**

Orain dela bi urte sortu zuten Betizu Taldea ETBko Betizu Klubean. Seikoteak osatu zuen lehenengo talde hura, tartean Uxue Rodriguez bergararra, eta urtebetez lan asko egin ostean erreleboa emateko ordua iritsi zitzaien. Orain arte boskotea ibili da han eta hemen Euskal Herrian kontzertuak ematen, eta bigarren diskoko abestiak aurkezten, *Bizi bizi* diskokoak.

Orain, baina, aldaketa egiteko ordua iritsi da, eta boskote izatetik laukotera pasatu dira. Hori bakarrik ez disko berria dakarte; eguaztenean, bertan, aurkeztutako *Gazteok* diskoa. Ekainaren 5ean Betizu jaian egingo dute aurkezpen ofiziala, baina lehenengo gure artean aurkeztuko dituzte bai abestiak, bai taldekide berria.

**LAUKOTEA**

Maiatzetik aurrera laukoteak osatzen du BT. Zuriñe Hidalgok eta Alba Barriosetak taldea utzi dute, eta hauen ordez Amane Ibañez sartu da.

Amane mungiarra da, eta orain arte taldean ibili ez bada ere hasiera-hasieratik dago Betizun. Elene Arandia tolosarra da eta 15 urte ditu. Kantatzea eta interpretatzea ditu gustuko, eta oso ondo moldatzen da oholtza gainean. Jatorri arabiarra du Saida Rouanek, baina Abadiñon bizi da. Bera da gazteena, 13 urterekin, eta izugarri gustatzen zaizkio txantxak. Telmo Idigoras zumaiarrak 15 urte ditu, eta taldeko mutil bakarra da. Hala ere, oso ondo zaintzen dute taldeko neskek, eta ez da ezeren kexu.

Betizu Taldearen disko berria ezagutu gura duenak martitzenean dauka aukera San Martin plazan. Abestiok aurkezteko gogoz etorriko zaizkigu lau neska-mutilak.

**Taldekide berria eta disko berria dakar Betizu Taldeak**




Abesti goxo eta leunak bizi eta dantzagarriekin tartekatuko dituzte lau neska-mutikoek.



**ELENA ARANDIA**
**Tolosa, 15 urte**



**SAIDA ROUANE**
**Abadiño, 13 urte**



**TELMO IDIGORAS**
**Zumaia, 15 urte**



**AMANE IBAÑEZ**
**Mungia, 15 urte**

IAM
Sarpen eta hari bidezko elektrohigadura
IAMMEK
Abiadura handiko mekanizatuak
IAMCUT
Ur-zorrotada bidezko mozketak
GRUPO IAM
Zorionak!
Amillaga 10. PK 175 BERGARA
Tel.: 943 76 91 00 Faxa: 943 76 29 49
www.iam.es

ROYDE BEARINGS
Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa

BVQi ISO 9001 UKAS
Jai zoriontsuak bergararroi!
Royde, S. Coop. •157 posta-kutxa • Amilaga 9 • 20570 BERGARA
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila:rap@royde.com • www. royde.com


TELAETXE
Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan
Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA•
Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik
• Kortinak
• Kortinoiak
• Estoreak
• Fundak
• Mantelak
• Nordikoak
• Izarak
• Oihalen neguko
kolekzio berria
ikusgai eta orain
ALFONBRAK


Bergarako Udalak
jai zoriontsuak
opa dizkizue!
BERGARAKO UDALA

DESA CRISTAL

- Ibilgailuendako kristalak
- Kamioiak • furgonetak • automobilak • autobusak
- Era guztietako kristalen muntaia
- Baimendutako Solar-Check laminen instalazioa

TAILERRA ETA BULEGOAK: Santalaitz 4-5. pabilioia.
83 posta-kutxa
Tel.: 943 76 36 09 • Faxa: 943 76 73 45
20570 BERGARA

TAILERRA: Ibaiondo bailara 17-8. pabilioia.
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47
20271 IRURA





50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

Jai zoriontsuak izan
ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga
Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxa 943 76 11 88
20.570 BERGARA

**ELKARRIZKETA** ERNESTO EZPELETA 'BIHURRI' AIZKOLARIA

# "Herri kirolak gure herriko kirolak dira eta zaindu egin behar ditugu"

MIRARI ALTUBE

**Eibartarra da, eta 39 urte ditu. Aizkora erabiltzen du esku artean, baina ez ditu nolanahiko enborrak mozten: tamaina handikoak ditu gustuko. Orain dela urte bi hasi zen hiru metrotik gorakoekin, eta aurten, bost metrokoa moztu du.**

**Aizkolaria zara, baina ezohiko aizkolaria.**

Hala esaten dute, baina aizkolaria aizkorarekin lan egiten duena da, eta nik horixe egiten dut; hortaz, ez dut uste apartekoa naizenik.

**Baina tamaina handiko egurrak mozten dituzu.**

Bai, azken bi urteotan hala egin dut. Mendaron moztu nuen, 2003an, lehenengoa, hiru metro eta erdi perimetro zuen enborra. Gero, lau metrokoa etorri zen, eta joan den otsailean bostekoa moztu nuen Abadiñon.

**Bukaerarik izango du horrek?**

Ez dakit, ikusi egin behar. Lan handia da halako enborrak moztea, eta egurra bera topatzea ere ez da samurra. Ez da edonola topatzen Abadiñon moztu nuena bezalakoa. Lan handia bakarrik ez, arriskutsua ere izaten da; batetik, denbora luzez egon behar delako lanean aizkorarekin eta ez delako jakiten gorputzak zela erantzun behar dizun; eta bestetik, enborraren barrualdea ez denez ikusten, ezin dugulako asmatu zelakoa aterako den.

**Zela gertatzen zara halako lan baterako?**

Kirten luzedun aizkorarekin egiten dut lan. Enborrean behar den lekuan mozteko zehaztasuna behar da, eta aizkorarekin lan asko eginda lortzen da hori. Indarra eta fondoa ere lantzen ditut, noski, baina ez naiz gimnasio zalea.

**Oraindik jendeak betetzen ditu plazak herri kirolak ikusteko?**

Futbolean gertatzen dena gertatzen zaigu: talde handiak ikustera joaten dela jendea. Plazan elkartzen direnei ahalegin handia egiten duten ikuskizuna ikustea gustatzen zaie, halakoak ikusita joaten dira gustura etxera, eta horixe egiten saiatzen gara gu. Gauza berriak erakusten ere saiatzen gara; hala, erakustaldia eta lehiaketak bateratzen ditugu gure ikuskizunetan. Tamaina handiko enborrak mozten ikustea gustuko dute, horrek ere ahalegin handia eskatzen du-eta. Herri kirolak, gainera, gure herriaren kirolak dira, eta nola edo hala zaindu egin behar ditugu, jai egitarauetan sartuta, esaterako.

**Bergarako jaietan zelako saioa egingo duzu?**

Erakustaldia egingo dugu lehenengo bertaratuko garenok. Nik aitzurrarekin moztuko dut enborra, eta zutik esku bakarrarekin ere bai. Jose Inazio Flores aizkolariak beste horrenbeste egingo du. Goenatxo II.ak hainbat harri jasoko ditu, eta Ana Berasategik bere ikuskizuna egingo du: harriarekin, ingudearekin eta fardoarekin. Gero, lehiaketa egingo dugu bik biren aurka. Ikuskizuna bukatzeko, motozerrarekin aulkia egingo dut. Horretan hasi nintzen, eta jendeak oso gustuko du motozerrarekin lanean ikustea; beti aulkiak eskatzen dizkidate, gainera.



...ETA KITTO! ALDIZKARIA

**Lan handia eta arriskutsua izaten da tamaina handiko enborrak moztea**

**Aitzurrarekin moztuko dut lehenengo enborra, eta zutik esku bakarrarekin ere bai**

ACERALIA PERFILES BERGARA, S.A.
Grupo Arcelor

*Altzairu-galdatzea eta profil komertzial eta estrukturalen laminazioa*

ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!

AENOR
ER
Empresa Registrada
ER - 262/2/94

Ibarra kalea 6 - Tel.: 943 76 19 40 - Faxa: 943 76 52 43
BERGARA (Gipuzkoa)

TORREKUA
ERRETEGIA

- Batik bat arraina
- Karta
- Eguneko menua
- Goizeko 7:00etatik zabalik

*ONDO PASAU DANOK!*

Ibargarai 37 • Tel.: 943 76 50 99



Mitor Garagardotegia

Depor Taberna

Irish PubGalway´s

Oilagorra

Maxim´s

Usoa

Ondo ibili Pazkoetan!

**Pazkoetan,
edalontzia zela ikusiko duzu:
erdi beteta ala…**



rintzi | Euxebio II | Etxagi | Ariznoa | Jam | Zunbeltz | Kortazar

GORLAKO IGOERA

# Zabaletak motor zaharra erabili beharko du Gorlan

**Bolun**

**Zapatua 16:00**

Entrenamenduak 16:00etan hasiko dira. Sarrera, iaz bezala, zortzi euro kobratuko dute.

## 40 parte-hartzaile izango ditu Gorlako Igoeraren 15. ekitaldiak; 16:00etan hasiko dira entrenamenduak

AINTZANE IRIZAR

**Euskal Mendiko Txapelketako bigarren lasterketa jokatuko dute bihar, zapatua, Gorlan. Zabaleta faboritoen artean dago, baina, motor zaharrarekin parte hartuko du.**




BERRIGARA

Iaz bi minutu eta 28 segundo behar izan zituen Zabaletak Gorlara igotzeko; aurten, lan zailagoa dauka, motor zaharrarekin.

Aitor Zabaleta bergararrari Lola BMW bere autoaren motorra hondatu egin zitzaion, eta motor zaharrarekin parte hartu beharko du zapatuan Gorlako lasterketan. Horixe da aurtengo albistea, bergarar zaleendako, bereziki. Arrateko igoeran ez zuen parte hartu, motor zaharra ere hondatzeko beldur zelako eta nahiago zuelako herrian parte hartzea.

Hala ere, faboritoen zerrendan dute Zabaleta Bergara Racing taldeko antolatzaileek. Berarekin batera, Jaime San Emeterio (PRM), Josu Ugarte (Formula Nissan), Francisco Arbina (Formula 3) eta Michel Iribarren (barketa).

### ETXEKO PILOTOAK

Baina ez da Aitor izango bergarar bakarra; Markel Agirrek ere parte hartuko du, Renault 5 GT turbo autoarekin. Aitor Ramirez oñatiarrak ere ez du hutsik egingo; BMW 320 ST autoa gidatuko du. Iaz zazpigarren egin zuen Aitorrek.

> **Bergara Racingeko antolatzaileek jakinarazi digutenez, iaz baino 19 pilotu gutxiago izango dira irteeran**

### PARTE-HARTZAILE GUTXIAGO

Iaz baino parte-hartzaile gutxiago egongo da aurten. Iaz 59 autok parte har[…] zuen Gorlako igoeran; au[…]ten, berriz, 40 auto izan[…] ditugu lasterketan. Horre[…] arrazoietako bat izan d[…]teke egun berean, Asturi[…]sen, Fito lasterketa jokat[…]ko dela. Europako txape[…]ketarako puntuagarria d[…] lasterketa hori. Hant[…] izango da, adibidez, And[…] Vilariño; berak irabazi zu[…] Arrateko lasterketa, Eu[…]kal Mendiko Txapelketa[…] lehendabizikoa.

### EGUN OSOKO AUTO JAIA

Goizean goizetik igarri[…] dute herritarrok Gorla[…] Igoera jokatzera doala; iz[…] ere, 09:00etatik 12:30e[…] autoak ikuskatuko ditu[…] Leizeaga kalean, indu[…]trialdean. Arratsaldea[…] berriz, 16:00etan hasi[…] dituzte entrenamendua[…] eta ondoren, bi txanda jok[…]tuko dituzte. 20:30ean, az[…]nik, sari banaketa ekitald[…] egingo dute, Jam aretoa[…]

Ibilbideak 4.850 metr[…] ditu, bihurgunez beteta[…]ak, gainera. Ikaragarri[…] izango da ikustea zela eg[…]ten duten ibilbide hori […] minutu eta erdi inguru[…]

COAR

Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.

BERGARA Tel.: 943 76 58 86 / 670 765 886

*Mentekoste jai zoriontsu eta alaiak guztioi!*

IMPRESPAL, C.B.
INPRIMATEGIA

- Offset
- Enkuadernazioa
- Fotokopiak

ZORIONAK GUZTIOI!

Komenio kalea 2 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 00 01 • Faxa: 943 76 22 41
e-posta: imprespal@euskalnet.net

### JANTZIDENDAK

**Bergara Piel.** Espaloia 6
**Gallastegi.** San Pedro 15
**Ikus-Bi.** Irala 5
**Jauja kiroldenda.** Irizar 3
**Laket.** Barrenkalea 35
**Mujika jostundegia.** San Martin plaza
**Subijai.** Irizar 1
**Zatoia.** Barrenkalea 4
**Zubikua.** Barrenkalea 24

### OINETAKOAK ETA POLTSAK

**Agirrebeña.** Urteaga 5
**Aldasoro.** Espoloia 4
**Carmen Garate.** Bidekurutzeta 15
**Galarreta.** Irizar 2
**Lazkano.** Barrenkalea 15
**Lonbide.** Bidekurutzeta 5
**Retegi.** San Pedro 18

### BURDINDEGIAK-BRIKOLAKETA LOREAK ETA PENTSUAK

**Ardatza brikolaketa.** Masterreka 4
**Gaztelu burdindegia.** Mintegi 1
**Gisasola burdindegia.** San Pedro 8
**Lislore loredenda.** Barrenkalea 28
**Mujika burdindegia.** Bidekurutzeta 8
**Narbaiza pentsuak.** Masterreka 22

# Tratu zuzenagoa, segurtasuna, konfiantza eta gertuan dauzkazu!

**Bergara, zure zentru komertziala**

**JAI ZORIONTSUAK HERRITAR GUZTIOI!**

BEDELKAR
BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

### HARATEGIAK

**Igarza J.J.** Irizar 3
**Imaz S.** Aranerreka 1
**Leturia J.M.** San Pedro 24
**Rezola L.M.** Matxiategi 7
**Urzelai P.** Ibargarai 7

### PAPERDENDAK-TINDATEGIAK-BESTE

**Elkar fotokopiadenda.** Artekalea 1
**Jolas.** Barrenkalea 27
**Marcó.** Bidekurutzeta 44
**Onena tindategia.** Barrenkalea 29
**Renteri tindategia.** Ikerleku 4

### ELEKTRAGAILUAK

**Biltoki.** Barrenkalea 6
**Herran.** Matxiategi 3
**Jakina.** Amillaga 10
**Radio Bergara.** San Pedro 25
**Santos RTV.** Masterreka 2

### PERFUMERIAK ETA ZERBITZUAK

**Tantana.** Irala z/g
**Goiara.** Irala 3
**Barcelo bidaiak.** Ibargarai 8
**TGB aholkularitza.** Matxiategi 36

### OPTIKAK-BITXITEGIAK-ARGAZKIAK

**Argazki.** Barrenkalea 16
**Etxeberria.** Bidekurutzeta 16
**Kiñu.** Barrenkalea 35
**Manso optika.** Irizar 2

### MERTZERIAK-LENTZERIAK

**Gantxegi.** Aranzadi 2
**Gracian Agirre.** Bidekurutzeta 6
**Igarza.** Irala 5
**Itziar.** Matxiategi 1
**Juana elgetarra.** Zubieta 28
**Mirari.** Martoko 32
**Nerea.** Simon Arrieta 1
**Phildar.** Irala 5

### OIHALAK

**Anezka.** Espoloia 8
**Casa Ugalde.** Bidekurutzeta 13
**Edel tapizdenda.** Bidekurutzeta 14
**Fernandez.** Ibargarai 2
**Maher.** Bidekurutzeta 29

### OSTALARITZA

**Arrano.** Kruz Gallastegi 5
**Azpeitxi.** Aranerreka 13
**Erreki.** Fraiskozuri 3
**Euskalduna.** Osintxu
**Guria.** Bidekurutzeta 5
**Lasa.** Ozaeta jauregia
**Miner banatzailea.** Matxiategi 23
**Pol-Pol.** Komenio kalea 11
**Sirimiri.** Barrenkalea 3
**Zabala.** Ibarra 14
**Zumelaga.** San Antonio 5

### JANARIDENDAK

**Goxo-Toki gozotegia.** Irala 3
**Hurbil dietetika.** Aranzadi 2
**Itxas Eder arraindegia.** Mintegia 5
**Kabutzia arraindegia.** Fraiskozuri 6
**Larrañaga gozotegia.** San Pedro 9
**Mujika gozotegia.** Artekalea 3
**Txukun.** Fraiskozuri 6
**Zapaterikua.** Joan XXIII.a plaza.

### ALTZARIAK, DEKORAZIOA

**Biltoki.** San Martin plaza 2
**Edertu.** Barrenkalea 23
**Guridi.** Artekalea 8
**Kanela.** Espoloia 10

Anduri landetxea



Ubera auzoa 13 • Tel.: 943 58 50 64

*Festetako zaratatik ihes egiteko edo jai osteko deskantsurako paraje ezin hobea.*
***Ondo pasau Mendekosteak***









**Alfa 147 pertsonalitatearekin**

Ondo pasau jaixetan!

Markiegi
AUTOAK

Leizeaga 1 • San Lorentzo industrialdea • Tel.: 943 76 35 09 • Faxa: 943 76 58 76

FIAT

KALE ANTZERKIA

# Mitologiako pertsonaiarik ezagunenak plazan

San Martin plazan
**Zapatua 16:30**
Euskal mitologiako pertsonaien berri emango digun kale antzerkia

**Euskal mitologia ezagutaraziaz, ederto pasaraziko diete umeei Iruñeko Yarleku antzerki taldeko kideek**

MIRARI ALTUBE

**Iruñeko Yarleku taldeak euskal mitologian oinarritutako kale antzerkia dakar, *Numenak*. Amaren bila dabiltzan galtzagorri biren istorioa, zapatu arratsaldean, San Martin plazan.**

Ondo pasatzearekin batera, erakustea du helburu *Numenak* izeneko kale antzerkiak. Hala, gure mitologiako hainbat pertsonaia aurkeztuko dizkigute istorio xarmangarri baten bitartez.

**GALDUTAKO GALTZAGORRIAK**
Bi galtzagorriren istorioa dakarte Yarleku taldeko kideek. Ekilore batetik sortu ziren udazkenean galtzagorriak, baina ez dakite zein duten ama. Txori itxura duen ieltxuak laguntza eskainiko die, baina lagundu ordez nahastu egingo ditu. Ama topatzeko egingo duten ibilbidean, mitologiako hainbat pertsonaia ezagutuko dituzte: basajauna, lamia, sorgina... Jentilen laguntzarekin, ama aurkituko dute kobazulo baten barruan; Mari, hain zuzen, eta honek udaberria sorraraziko du.


YARLEKU
Bi galtzagorriren eskutik, euskal mitologiako pertsonaiak ezagutuko ditugu Yarleku taldeak eskainitako *Numenak* kale antzerkian.

**Gure umeei inon erakusten ez dieten euskal mitologiaren berri eman gura diete**

Yarleku taldeak umeek ondo pasa dezaten gura du, baina, era berean, inon erakusten ez dieten euskal mitologiaren berri eman gura diete.

**IRUÑEKO ALDE ZAHARREAN**
Yarleku taldea 2003an sortu zuten Iruñean. Zirkoko teknikak erakustea helburu duen Zirko Oreka Eskolatik eta Nafarroako Antzerki Eskolatik datozen gazteek osatu zuten Yarleku. Bi talde osatu zituzten lanerako: batean aktoreak daude, eta bestean muntaiarekin arduratzen diren teknikariak.

Yarleku taldea, gainera, Iruñeko alde zaharrean sortu zen Auzoenea izeneko proiektu barruan dago. Auzoenearen helburua da auzoko taldeek eta bizilagunek kudeatutako zentroa aurrera ateratzea. *Numenak* antzezlaneko muntaiarako behar dituzten guztiak Auzoenean egiten dituzte, eta gainera, zela egin erakusten duten eskola bihurtu da zentro hori. Hala, bai entseguetarako, bai lanerako, 15 bat lagun elkartzen dira. *Numenak* kale antzerkia iazko uztailean aurkeztu zuten Burlatan, eta geroztik geratu barik ibili dira hara eta hona Euskal Herriko ume guztiengana heldu nahian.

Industriak
Azkoin
AENOR ER Empresa Erregistratua ER-0872/2004 ISO 9001/ 2004
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!
Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa. 109 posta kutxa Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20 Bergara

INDUSTRIAS BEGU S.A.
GRUPO RECYDE
AENOR ER Empresa Erregistratua 0828/1999 ISO 9001/ 2000
Doitasun-dekoletajea
Tel.: 943 76 21 93 - 943 76 72 72 Faxa: 943 76 04 24 • OSINTXU BERGARA
• E-maila: begu@gruporecyde.com
Ondo pasau jaixetan!

**PINTURA**

# Abdon Juaristiren erakusketa, Aroztegiko aretoa zabaltzeko

## Margolari bergararraren erakusketa ekainaren 12ra arte izango da zabalik atzo inauguratutako Aroztegiko aretoan

EDU MENDIBIL

**Atzo, eguena, inauguratu zuten Aroztegiko erakusketa areto berria. Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa ikusgai izango da han datorren ekainaren 12ra arte.**

Abdon Juaristiren (1948-1997) 50 bat koadro jarri dituzte ikusgai. Juaristiren familiaren koadroez aparte, han eta hemen banatutakoak jaso dituzte erakusketarako.

Juaristiren erakusketa antologikoan margolari bergararrak hainbat garaitan egindako lanak daude ikusgai. 1970etik 1997ra margotutako koadroak dira, hainbat estilo eta formatutakoak. Hainbat akuarela eta *guasch* ere jarri dituzte. Hain ezagunak ez diren formatu handiko sei koadro daude.

Simon Arrietarekin eta Moises Egurenekin pintura ikasketak egin zituenetik, margolaritzan lan oparoa egin zuen Abdon Juaristik.


EDU MENDIBIL

Aroztegiko aretoan Abdon Juaristiren erakusketa antologikoa jarri dute. Argazkian Mertxe Lasa, martitzenean Aroztegin ateratako irudian.

**PRIMERAKO PAISAJISTA**

Luis Laskurain Beart elkarteko kideak gertutik ezagutu zuen Abdon. Berak esan digu: "Bere eboluzioa ikus daiteke erakusketan, nahiz eta batasun bat dago-

**1970etik aurrera Juaristik margotutako koadroak daude ikusgai, hainbat estilo eta formatutakoak**

en bere lanean. Nagusiki, pintore paisajista zen Abdon, pintzelada erritmikoa eta oso garbia zuena eta bere koadroetan kolore beroak maisuki erabiltzen zituena. Bodegoiak edo formatu handiko lanak ere egin zituen, eta horietan, beharbada, kementsuagoa den espresioa azaldu zuen. Lagun bezala zer nabarmenduko nukeen? Nahiz eta kontrakoa zirudien, pertsona lotsatia zela esaten dut katalogorako idatzi dudan testuan. Bera profesionala zen eta askotan zirikatzen zigun beste margolarioi. Hala ere, aurrera jarraitzeko animatzen gintuen beti".

**EKAINAREN 12RA ARTE**

Pazkoetan, 12:00etatik 14:00etara izango da zabalik Aroztegiko erakusketa; gero, aste barruan 18:00etatik 20:30era eta aste bukaeretan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Erakusketa hauek, hitzaldiak eta formatu txikiko kontzertuak egiteko erabiliko da aretoa. Maider Osa kultura teknikariak esan digunez, "erakusketek izango dute lehentasuna, baina bestelako ekitaldiak ere ekarriko ditugu".

PASCUAL
TELEKOMUNIKAZIOAK
Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.
UNItec


Liderrak
telefonia mobilean
EGi
Golmar
Ibargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com
Banatzaile ofiziala
Telefónica
movistar



Ondo pasau
Bergarako jaixetan!
GRUPO ITESA
San Juan 7 • BERGARA • Tel.: 943 76 22 97

PINTURA

## Aspaldiko ametsa

Mertxe Lasa Abdonen alargunak aspaldiko ametsa zuen erakusketa antologiko hau antolatzea. Hasieran, 2002. urtean egitekoa zen, baina Aroztegiko proiektua sortu zenetik atzeratuz joan da.

Lagunen eta Beart elkartearen laguntzaz, 47 koadro batu dituzte erakusketarako. Horien artean, *Esfinges* eta *Checa* izenburukoak nabarmentzen ditu Mertxe Lasak: "Akordatzen naiz lehenbizikoak buruhauste ugari eman ziola. *Checa*, berriz, pintzelada gogorrez eta azkarrez egindakoa da, jeinu txarra nabari da. 1996koa da eta, ordurako, fisikoki ondo ez zegoela igarriko zuen beharbada".

Katalogoan hainbat aditu eta lagunen testuak bildu dituzte. Emaitzarekin pozik geratu da Mertxe eta, etorkizunean ere, Juaristiren lana gogora ekartzen saiatuko dela esan digu.





*Getaria* (1994).



*Checa, Teruel* (1996).



*Motrico* (1975).



*Estepona* (1982).

OREGI MEKANIKA TAILERRA SM

DOITASUNEZKO MEKANIKA TAILERRAK

- Elektro-erosiorako eta hotzeko estanpaziorako tresneria
- Mekanikako gailuak eta muntaiak
- Ehungintzako makinendako elementuak
- Makinendako elementuen eta organoen fabrikazioa
- Plano gaineko piezak

ONDO PASAU JAIXETAN!

Telleria 21 — C3 65 p.ku. Tel.: 943 76 16 08 Faxa: 943 76 47 55 BERGARA

BELMEK

DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK

DQ certificación E.R. 02/591 ISO 9001/00 ENAC-ek bermatua

Telleria 19, B-5
BERGARA

Tel.: 943 76 94 60
Faxa: 943 76 92 81
belmek@belmek.com
www.belmek.com

Zorionak Bergararroi!



BERRIGARA
Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

MUSIKA ETA IKUSKIZUNA

# Eskoziarren umorea dakar McKensy´s Clan Bandek

**Boskote dibertigarri eta xelebreak paregabeko giroa sortuko du musika eta antzerkia bat eginda**

San Martin plazan

**Zapatua 20:30**

Musika, zalaparta eta umore ona ekarriko ditu Eskoziatik datorren boskoteak

MIRARI ALTUBE

**Ezohiko ikuskizuna dakarte Eskoziako gonak jantzita datozen musikari hauek. Umeek zein nagusiek barreari ezin eutsita ikusiko dituzte McKensy´s Clan Banden erokeriak.**

Eskoziako lainoarekin gogaituta eguraldi ona eta jai giro bila etorri da Glasgowko taldea. Katalunia aldean ibili da orain arte McKensy´s Clan Band, baina orain Euskal Herrirantz etortzea erabaki du, eta Bergaran azalduko da zapatu iluntzean.

**MUSIKA ETA ANTZERKIA**

Eskoziako gonak aldean jantzita etorriko da Glasgow aldetik datorren boskotea. Jai giroa sortu eta jai giroan sartzeko paregabeko ikuskizuna eskainiko dute. Musika, antzerkia eta malabarak erabiliko dituzte bost eskoziarrek heldu zein umeen barre algarak sortzeko. Gaitak eta danborrak dira gehien erabiltzen dituzten musika tresnak, baina txirula eta akordeoia ere agertuko dira musikarien eskuetan.



KALEAN

Helduek zein umeek atzetik jarraitu gura izango diote Eskoziatik datorren boskote musikariari.

**Eskoziako gonak aldean jantzita eta umore onez gainezka etorriko da Glasgow aldeko musika taldea**

**Txoroak, dibertigarriak eta xelebreak izanik kontzertu benetan ezohikoak ematen dituzte**

**BOSKOTE XELEBREA**

Txoroak, dibertigarriak eta xelebreak izanik kontzertu benetan ezohikoak ematen dituzte. John McKensy da taldeko zuzendaria, eta lau musikaririen laguntza dauka: Paul McGuiver danbor-jolea, Bill McIntosh txirula-jolea, George McFlurry gaita-jolea eta akordeoi-jolea, eta Liam McAgüen dunbal-jolea.

Eskoziako kulturaren berri jasoko dugu musika eta antzerkiaren bitartez. Zaila izango da, gainera, non bukatzen den seriotasuna eta non hasten den txantxa asmatzea. Izan ere, helburu bakarrarekin datoz: Bergara hankaz gora jartzea. Musika alaia, umore ona eta xelebrekeriak bat egiten dituen ikuskizunarekin gozatu gura duenak San Martin plazara hurreratu besterik ez du zapatu iluntzean. Harrituta utziko dute eskoziarrek.

Zumelaga
JATETXEA
Jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!
San Antonio 5 BERGARA 943 76 20 21
63 urte zuen zerbitzura!

Cantero Instalaciones
San Miguel 8/10 • 607 78 70 58
• Iturgintza
• Akreditazioa: gas ontziratua
• Galdaren mantentzea
Ondo pasau jaixak!

UDAL
EUSKALTEGIAK

Ondo
ibili
Pazkoetan!

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

*Aurtengo Pazkoetan, jai zoriontsuak*
*opa dizkizuegu herritar guztioi!*

metagra

Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxa: 943 76 50 34
e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com

EA
eusko alkartasuna

Mendekoste jai zoriontsuak herritar guztioi!

GA
Gazte Abertzaleak

www.euskoalkartasuna.org

Barrenkalea 18
BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81

www.gazteabertzaleak.org

URBIETA
zeramikak eta bainuak
PORCELANOSAko banatzaile ofiziala




- Bainurako altzariak
- Zeramikak
- Hidromasaje kabinak
- **Elbarrientzako bainu erreformak eta osagarri bereziak** (erakusketa eta salmenta)

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Jai zoriontsuak guztioi!

Erakusketa: Ibargarai 11-13 • Tel.:/ Faxa: 943 76 14 50
Tailerra: Zabalotegi 7-8 • Tel.:/Faxa: 943 76 14 50

DANTZA

# Dantza solteko dantzari onenak norgehiagokan

**Hamabost bikotek hartuko dute parte; lehenengo dantza saioa goizean egingo dute eta finala arratsaldean**

San Martin plazan

**Domekan**
**12:00**
**eta 17:30**

Bi saio egingo dituzte; sariak arratsaldean banatuko dituzte

MIRARI ALTUBE

**Euskadiko dantzari onenek Bergaran daukate hitzordua domekan. Abarka Dantza Elkarteak antolatuta 28. Dantza Solte Txapelketa joatuko dute 16 urtetik beherakoek. Jantzi dotoreenei ere emango diete saria.**

Euskal Herriko 15 bikotek hartuko dute parte 28. Dantza Solte Txapelketan, horietatik hiru bergararrak. 16 urte baino gutxiago dituzten gaztetxoak dira guztiak eta jantzi dotoreenekin hurreratuko dira gurera.




ARTXIBOA

Fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte dantzari gaztetxoek epaimahaiko kideen aurrean.

## Euskadiko 28. Dantza Solte Txapelketako bikoteak

- Estibaliz Aranguren-Jon Ibarguren / Azpeitia
- Nagore Larrañaga-Iñigo Larrañaga / Azpeitia
- Ainhoa Bereziartua-Jon Aranguren/ Azpeitia
- Aitziber Amantegi-Aimar Abad / Urnieta-Hernani
- Irantzu Larrañaga-Iraitz Olariaga / Azpeitia-Azkoitia
- Izarne Medina-Jon Arrillaga / Bergara
- Elene Sasieta-Joanes Plazaola / Bergara
- Amaia Bolinaga- Aritz Arrillaga / Bergara
- Iker Sanz-Idoia Besada / Lezo-Pasaia
- Garazi Lekuona-Unai Santos / Lezo
- Iera Maiza-Jon Intxausti / Olaberria
- Naiara Uranga-Asier Sarasola / Orio
- Lore Ibarguren-Aratz Madariaga / Orio
- Estela Atorrasagasti-Mikel Otegi / Orio-Donostia
- Irati Perez de Ziria-Joseba Barberena / Atarrabia

### GOIZEAN ETA ARRATSALDEAN

Azken urteotan bezala, Bergarako Abarka Dantza Elkarteak antolatu du txapelketa. Bi zatitan banatu dute. Lehenengo saioa 12:00etan egingo dute izena emandako guztiek, eta fandango eta arin-arin bana dantzatu beharko dituzte trikitilarien laguntzarekin.

Bigarren saioa arratsaldean izango dute, 17:30ean, atseden hartzeko astia izan eta gero. Oraingoan, fandangoa txistu doinuekin dantzatuko dute ,Bergarako Udal txistularien laguntzarekin, hain zuzen, eta arin-arina goizean bezalaxe, trikitilariekin.

### SARIAK

Epaile lanetan Euskal Dantzari Biltzarrak izendatutako bost kide egongo dira: Joxe Juan Ugalde, Kepa Illarreta, Kepa Salaberria, Atxukarro eta Esti Iturria. Hain zuzen Esti Iturria izango da dantzarien jantziei zorrotz begiratu eta epaituko dituena. Goizeko saioan emandako puntuei arratsaldekoak batuko dizkiete epaimahaikoek, eta puntu gehien jasotzen dituen bikotea izendatuko dute 16 urtetik beherako Euskadiko dantza solteko txapeldun. Ez da gero lan erraza izango, dantzari benetan bikainak hurreratuko dira-eta.

Erabakia hartu ostean, garaikurrak eta dirua emango dizkiete onenei. Bikote txapeldunak Udalaren garaikurra, txapela eta zapia, eta 160 euroko saria jasoko ditu. Lehenengo 12 bikote sailkatuek jasoko dituzte garaikurrak eta dirua. Jantzi dotoreenei eta 12 urte baino gutxiago dituzten lehen sailkatuei bestalde, garaikur bereziak emango dizkiete.

Dantza soltea gustuko duenak dantzari gaztetxo horien abilezia frogatzeko aukera izango du domekan.

Txuringo
Jatetxea
Orain igandeetan zabalik!
Osintxu auzoa - Bergara • Tel.: 943 76 48 63




Pazkoetan
ondo
pasau!

margolan
margoak

- margo orokorra
- margo dekoratiboa
- umeentzako dekorazioak
- bidrieren margolanak
- imitazioak

Jai zoriontsuak guztioi!

Sagasti auzoa Zª 5-3D • 20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955 • 687 570 777

SOKAMUTURRA

# Zezen gosea asetzeko, sokamuturra goizetan

San Martin plazan

**Domeka**
**08:00**

**Astelehena**
**08:00**

**Martitzena**
**08:00**

## Aurten ez da zezen plazarik egongo, baina zezen zaleek sokamuturra izango dute domekatik martitzenera

MIRARI ALTUBE

**Ez dute zezen plazarik jarriko; hortaz, ez da egongo zezenketarik ezta errekortadorerik ere. Hori bai, zezenak gustuko dituenak sokamuturra izango du hiru egunetan.**

Goizeko zortzietan egingo dute sokamuturra domeka, astelehen eta martitzenean. Hortaz, zezen txikiak ikusi gura dituenak biharamun barik jaiki beharko du.

**ZEZEN PLAZARIK EZ**

Zezen kontuek aldaketak izan dituzte aurten. Izan ere, zezen plaza ez jartzeak zezenketarik ez egotea dakar. Ez zezenketarik, ez errekortadore txapelketarik, ezta Kubatik ekarri gura zuten rodeorik ere. Ez da guztien gustuko erabakia izan, Bergaran zezenak ikusteko ohitura handia dagoelako. Zezen zaleak, baina, ez dira ikuskizun barik geratuko, sokamuturra izango dute-eta hiru egunetan: domekan, astelehenean eta martitzenean.

**DULTZAINEROEK GIROTUTA**

Lasturretik, Debatik, ekarriko dituzte zezen txikiak, eta 310 kilo baino gutxiagokoak dira guztiak. San Martin plaza eta Barrenkale kalean egingo dute sokamuturra; hau da, goialdetik Munibe plaza ingururaino, handik Bidekurutzetarako bidea autoendako libre utzi eta behealdetik Lazkano oinetako denda pareraino ibiliko dira. 08:00etan hasiko dira, eta ia bi orduz kalean gora eta behera ikusiko ditugu soka lepoan duten zezen txikiak.

Dultzaineroak izango dituzte lagun hiru egunetan, Lizarrako dultzaineroak, hain zuzen, eta astelehen eta martitzenean Incansables txaranga ere etorriko da goiza girotzera.

**14 URTETIK GORAKOENDAKO**

Bergarako Udalaren aginduz, sokamuturrean 14 urtetik beherakoek ezingo dute ibili, ezta alkoholaren edo beste drogaren baten menpe daudenak ere, eta osasun mentala galduta dutenak. Hala adierazten du Udalak atera duen bandoak, eta gainera, Udaleko langile edo ordezkariek jendea ikuskizunetik baztertzeko edo sartzen ez uzteko ahalmena izango dute. Gainerakoek gustura ibiltzeko aukera daukate, eta aurten, hiru egunetan.



HILARIO AZKARGORTA

Zezen plazarik ez, baina sokamuturra izango dute aukeran hiru egunetan zezen zaleek. Argazkian, aspaldiko irudi bat.

**Lasturretik, Debatik, ekarriko dituzte zezenak, eta 310 kilo baino gutxiagokoak dira guztiak**

KI

*Kalebarren instalazioak SM*

JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!

- *Proiektuak*
- *Instalazioak eta mantenimendua*
- *Gasa*
- *Berogailua*
- *Aire girotua*
- *Iturgintza lanak*

Aurrekotuak konpromesorik gabe

Bidekurutzeta 31 behea
Tel.: 943 76 11 67 BERGARA
E-mail.: kalebarren@inicia.es

Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE
944 75 99 60 DEUSTO

COEG

Tel. : 943 76 56 88

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Aseguruak: Lagun-aro, Aegon.

Ortodontzia

Ahoko zirugia eta inplanteen zirugia

*Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA*

**Ondo ibili Mendekoste jaietan!**

EAJ
PNV

Jai zoriontsuak izan ditzazuela guztiok

BULEGOA Tel.: eta faxa: 943 76 47 00
TABERNA Tel.: 943 76 49 33
San Pedro 4, BERGARA



Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / 20570 Osintxu-Bergara / industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es



Jean Louis David

# Udaberria — Uda 2005

Ilea moztea, koloreak: denboraldi honetarako ukitu pertsonala
Jean Louis David-en

**BULEGO NAGUSIA**
Gasteiz etorbidea 84 - GASTEIZ
Tel.: 945 21 42 38 Faxa: 945 24 90 00
E-posta: maragui@maragui.com
Bezeroaren telefonoa: 945 21 42 38

TRADITION
Ibargarai, 43
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 22 48

DIFFUSION QUICK SERVICE
Magdalena 16
01008 GASTEIZ
Tel.: 945 13 47 26

DIFFUSION
Urbil merkataritza-gunea
Asteasuain Poligonoa (Txikierdi) - B7 lokala
20170 USURBIL
Tel.. 943 36 08 17

DIFFUSION
Garbera merkataritza-gunea
Garbera 1 - 23 lokala
20017 DONOSTIA
Tel.. 943 39 45 86

DIFFUSION
Lakua merkaitza-gunea
Wellington dukea 6A - 5lokala
01010 GASTEIZ
Tel.. 945 17 91 50

**Mizpildi 8**
943 76 12 32
**BERGARA**



**Matxiategi 1**
943 76 72 73
**BERGARA**



# MIZPILDI

OKINDEGIA

**Jai zoriontsuak guztioi!**

KARAOKEA

# Euskal abestien karaokea ume zein nagusiendako

San Martin plazan
**Martitzena 21:30**
Euskal abestiak kantatu eta gorputza astintzeko aukera paregabea

**Euskal abestiak abestuko dituzte lehenengo karaokearekin, eta gorputzak astintzeko DJ festa egongo da gero**

MIRARI ALTUBE

**Euskal karaokea eta DJ festa eskainiko dituzte Arrasateko Txatxilipurdi elkarteko kideek jaietako azken egunean. Gaueko hamabietan, Bitorianatxori agur egiten ere lagunduko diete bergararrei.**

Jaietako azken eguna umeen eguna da, eta era guztietako musikarekin gozatzeko aukera izango dute. Betizu Taldearen kontzertu ostean, karaokea eta DJ festa izango dituzte. Hortaz, jolasean hasi eguna eta dantzan bukatuko dute.

**ABESTU ETA DANTZAN EGIN**

Arrasateko AED elkarteko Txatxilipurdiko bi kide etorriko dira martitzen iluntzea girotzera. Euskal abestiz osatutako egitaraua ekarriko dute, eta umeei emango diete abesteko aukera, euskal karaokea da eta eskainiko dietena. Mikrofonoak umeen eskuetan utziko dituzte, eta euskal abestirik ezagunenen doinuak jarriko dizkiete abesteko: *Ikusi mendizaleak, Sin Txan, Lau teilatu*... 40 abesti izango dituzte aukeran. Umeak bakarrik ez, helduak ere hurreratu ahal izango dira abestera. Horretarako, baina, etxean utzi behar lotsa.

Orduek aurrera egin ahala, karaokeak DJ festari egingo dio lekua. Hala, nagusiagoen txanda izango da San Martin plazan, eta doinurik martxosoenak jarriko dituzte Arrasateko DJek Bergarako gazteak dantzan has daitezen.

**ZAZPI URTEKO IBILBIDEA**

Orain dela zazpi urte jarri zuen abian egitasmo hau AEDk. Herri askotara joan dira ordutik, Bizkaia aldera batez ere, eta harrera oso beroa egin diete guztietan. Aurten Bergarako ume eta gazteak jarriko dituzte dantzan. Ez hori bakarrik; Bitorianatxori agur esaten ere lagunduko dute.

**Mikrofonoak umeen eskuetan utziko dituzte eta euskal abesti ezagunenen doinuak jarriko dizkiete abesteko**


TXATXILIPURDI
Abestu eta dantzan egiteko aukera paregabea izango dute ume eta gaztetxoek Arrasateko Txatxilipurdiko bi DJen eskutik.

ROTULOS ZABALETA
Mota guztietako errotuloak
Ondo ibili guztiok Pazkoetan!
Telf. 943 76 57 34 Faxa 943 76 58 53 Mobila 689 54 81 83 BERGARA
r-zabaleta@euskalnet.net

López Ojeda
Amillaga 25 • Industrialdea
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)
Covila — Errioxako ardo beltza, urtekoa
Señorío de Ojeda — Errioxa
Castillo de Ojeda — Nafarroa
Ondo pasa jaietan!
ATXEGA ARDOAK S.L.
Ortzaika auzoa
Tel.: 943 830 369
943 830 375
20.810 ORIO
(Gipuzkoa)

KOADRILEN EGUNA

San Martin plazan
**Astelehena**
**12:00 Jolasak**
**14:30 Herri bazkaria**
**18:30 Miss eta mister lehiaketa**

# Herriko koadrilak batera kalean jai giroa ipintzen

**Aurten koadrilen eguna berritasunez beteta dator. Martitzenetik astelehenera pasatu da, herri bazkarian ez da *catering* zerbitzurik izango, paella erraldoia baizik; gainera, ohiko jolasez gain, Miss eta Mister Jator lehiaketa antolatu dute. Hala ere, antolatzaileen helburua ez da aldatu: koadrilak batu eta herrian giroa ipintzea.**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Aurten astelehenean, koadrilen eguna. Goizean goiz hasita, jai giroa kalean zabaldu eta jolasak, musika eta herri bazkaria izango dira, besteak beste, koadilen gozamenerako.**


BERRIGARA

Herri bazkarirako txartelak Kortazar eta Pol-Pol tabernetan eta San Joxepe elkartean eros daitezke zortzi euroren truke.

Egitarau zabala gertatu dute antolatzaileek koadrilen egunerako. Goizean dianarekin esnatu eta sokamuturra ikusteko aukera izango dute goiztiarrenek, eta izango da zezenaren aurrean korrika egitera ausartuko denik ere.

Behin korrika ibili ostean, indarrak berritzeko eta, era berean, jendea etxera erretiratu ez dadin eta jai giroa sortzeko, txorizo pintxoak eta edatekoa banatuko dituzte plazan. "Espero dugu ume, gazte zein helduak geratzea. Helburua da kalea girotzea; horretarako, besteak beste, musika egongo da plazan", esan digute.

Jendea plazara gerturatu ahala, 12:00ak aldera, jokoak hasiko dira. "Aurten nahi izan dugu bazkal aurretik jokoak egitea, jendeak taldeka parte har dezan". Taldeak gutxienez zortzi lagunekoak izango dira: koadrilak zein, besterik gabe, hainbat lagun elkartu eta sortutako taldeak. Hainbat jolas egingo dituzte: asto karrera (astoak antolatzaileek ekarriko dituzte); txerri harrapatzea; zaku karrera...

Koadrilen arteko jo[...] ak amaituta, kalejira iz[...] go da bazkaldu aurre[...] eta antolatzaileek anima[...] nahi dute jendea egue[...] aldean plazara inguratze[...] bai jokoak ikustera ba[...] kalejirara ere.

**PAELLA BAZKALTZEKO**

Bazkaria 14:30 inguruan iragarri dute. Aurten[...] berritasuna da herri ba[...] karian ez dela *catering* ze[...] bitzurik izango. Paella erraldoia egingo du enpr[...] sa batek plazan, eta ho[...] bazkalduko dute bergar[...] rrek. Aurretik, aperitib[...] ak izango dira mahaian[...] gero, norberak bete be[...] ko du bere platera arro[...] rekin. Bazkarirako txar[...] lak salgai daude zortzi eu[...] ren truke Kortazar e[...] Pol-Pol tabernetan eta S[...] Joxepe elkartean.

Musika bazkalaurre[...] eta musika bazkaloste[...] Izan ere, *Incansables* t[...] rangakoak bertan izan[...] dira, eta baita Josu eta Jo[...] eta Xapre eta Zarra triki[...] lari bikoteak ere.





ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

76 urte zuekin!

Jai zoriontsuak herritar guztioi!

YON BILBAO S.M.

Ondo pasau Pazkoetan!

• ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
• ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA

Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32

## KOADRILEN EGUNA

Baina musikariak ez dira izango bazkal ostean jai giroa ipiniko duten bakarrak. Berriz ere, taldeka elkartu eta jolasak izango dira: aulki-dantza, kaskara batzea, sagar-dantza...

Goizeko eta arratsaldeko jokoetan puntu gehien jaso eta irabazten duen taldeak sari potoloa jasoko du: asteburu bat nekazal turismo etxe batean pasatzeko aukera.

**MISS ETA MISTER JATOR**

Bergarak eta bergararrek beti izan dute dotore fama, eta dotoretasun hori erakusteko edo, Miss eta Mister Jator lehiaketa antolatu dute astelehen arratsalderako. 18:30ean hasiko da lehiaketa plazan eta edozein herritarrek hartu ahal izango du parte.

Ohiko miss eta mister lehiaketen moldeari jarraituz, eszenatokian euren dohainak erakutsi beharko dituzte hautagaiek. “Ez da edertasuna bakarrik kontuan hartuko; originaltasunari eta taula gainean erakusten duten graziari erreparatuko diote, batik bat, epaimahaiko kideek”, esan digute antolatzaileek.

Irabazleendako sari txukuna gertatu dute: 150 euro Bedelkarreko komertzioetan gastatzeko.

Horren truke, ordea, Bergarako aurtengo missak eta misterrak banda eta koroa soinean dituztela ibili beharko dute kalean gau osoan barrena.



BERRIGARA

Bazkalaurretik eta ondoren koadrilen arteko jokoak egongo dira plazan; besteak beste, aulki-dantza.

### Miss eta Mister Jator lehiaketako irabazleek koroa eta banda eraman beharko dituzte soinean gauean barrena

Antolatzaileek aurreikusi dute bai Miss eta Mister Jator lehiaketako eta baita jokoetako sariak 19:30 inguruan banatzea plazako eszenatokian.

Koadrilen eguna erromeria giroan amaituko da. Horretarako, Tapia eta Leturiaren trikiti doinuak eta bergararren dantzak uztartuko dira.

### Antolatzaileek herriko koadrilei dei egin diete, eguna aldatu arren, lagun taldean ospatu dezaten koadrilen eguna

**KOADRILEI DEIA**

Aldaketa izan da koadrilen egunean, baina antolatzaileen nahia da astelehenean ere nabarmen igartzea herri giroa kalean.

“Dei egin nahi diegu orain arte koadrilen eguna martitzenean ospatzen zutenei, eguna astelehenera pasatu arren jarrai dezatela berdin-berdin lagunartean elkartu eta ospatzen, nahi badute antolatutako ekintzetan parte hartuz edo, bestela, euren kabuz koadrila giroan”, esan digute antolatzaileek.

### Aldaketa martitzenetik astelehenera

**Orain artean martitzenean ospatu izan dute bergararrek koadrilen eguna. Aurten, ordea, astelehenera aldatzea erabaki dute. Aldaketa horren zergatia galdetuta, hauxe erantzun digute jaien antolatzaileek: “Iaz koadrilen egunak beherakada izan zuela ikusita, aldatzea erabaki dugu. Astelehena indarra hartuz joan da pixkanaka, eta jendeak gaupasa egiten duenez, martitzenera ez zen jai gogoz iristen. Bestalde, eguaztena laneguna izanik, martitzenean goiz erretiratu beharra zegoen, eta hori aitzakia izan ohi zen askok koadrilen egunean ez parte hartzeko. Astelehena egun egokiagoa da denondako eta, horrela, herri giroa nabarmen igarriko da kalean”.**

**Estella ortopedia**
Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
*OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA*
• Etxerako laguntza teknikoa • Kirol Ortopedia • Oinetakoak
• Mastektomia • Neurrira eginiko plantillak
Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63
jai zoriontsuak!

ARATZ
ALBAITARI KLINIKA
*Aratzek jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei*
Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 poltsikokoa: 607 48 71 19

UME JOLASAK

# Jolasparkea eta barrakak aukeran dituzte umeek

**Martitzenean, umeen egunean, jolasparkea egongo da Ipintzan goiz eta arratsaldez, adin guztietarako jolasekin**

Ipintzan

**Jolasparkea martitzenean, 11:30ean eta 17:00etan**

Gura beste jolas egiteko parkea

MIRARI ALTUBE

**Musika, antzerkia eta, nola ez, jolas egiteko aukera izango dute ume eta gaztetxoek. Barrakak egunero izango dituzte, 1,50 euro ordainduta, eta jolasparkea umeen egunean.**

Zer dira jaiak jolasik gabe? Horixe pentsatuko dute umeek eta umedun askok. Urtero moduan, aukeran izango dituzte barrakak eta, martitzenean, Ipintzan jarriko duten jolasparkea.

**ADIN GUZTIETAKO UMEENDAKO**

Ume txikiendako eta nagusiagoendako, guztiendako daude jolasak martitzenean, umeen egunean. Gaztelu puzgarriak 6 eta 14 urte arteko neska mutikoendako, karsak 8 eta 14 urte artekoendako, pilota etxea eta ludoteka jarriko dituzte. Ludoteka barruan sugea, txirrista, etxetxoa, trizikloak, golak sartzeko atea, txirrista txikia eta txu-txu trena izango dituzte etxeko txikienek. Urtero moduan, arrakasta ziurtatuta dago; akaso txanda eskatu behar, bertaratuko diren umeek gura duten leku guztietan egiteko jolas. Ipintzan egongo da jolasparkea: goizean, 11:30etik 13:30era, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.



ARTXIBOA

Jolasparkea eta barrakak bete egingo dira jolas egitera datozen ume, guraso eta gaztetxoekin.

**Txikienendako, sugea, txirrista, etxetxoa, trizikloak, golendako ate puzgarria eta txu-txu trena**

**Prezioan ez da aldaketarik izango iaztik: 1,50 euro ordaindu beharko dute bidaia bakoitza**

**BARRAKAK MATXIATEGIN**

Umeen egunean jolasparkea, baina barrakak jaietako egun guztietan izango dira Matxiategin. Urteroko ikuskizun eta jolasak ekarriko dituzte: auto-txokeak, Kartzela, Matxinsaltoa, ohe elastikoak, txiki parkea... eta beste horrenbeste. Tonbola, bingoa eta tiro postuak ere izango dira, txurro saltzailearekin batera.

Prezioan ez da aldaketarik izango eta gurasoek, iaz moduan, 1,50 euro ordaindu beharko dute bidaia bakoitza. Hori bai, astelehenean eta eguaztenean, prezio berean -1,50-, bi bidaia emango dituzte. Hortaz, aprobetxatu egin behar aukera, bidaiak agudo ematen du buelta eta.



Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

ZORIONAK GUZTIOI!

Ariznoa HOTELA

Telesforo Aranzadi, 3
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848
20570 BERGARA - Gipuzkoa

EYSKO S.A.

Jai zoriontsuak!

Makina-erremintako laguntzailea • Doitasunezko multzoak

Amillaga 7 · 147 pk · 943 76 21 41 / 76 46 05 · Bergara

# Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia





**Zoru aukera zabala**
Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak eta estratifikatuak





Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

K21 KALITATEA

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



# BERGARA
## Kafea-Pentsioa









**ASTELEHENETIK OSTIRALERA, GOIZEKO 6:00etatik ZABALIK**

**ASTEBURUETAN 7:00etatik ZABALIK**

Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

***Ondo pasau Pazkoetan!***


Opel. Ideia berriak. Auto hobeak
Astra GTC berria
Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu
GTC
**Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu.** Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorrak, haizetako panoramiko esklusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeko behar duzun guztia.
www.astragtc.com.es
GMAC Financial Services
Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.
Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra Gama GTC: Kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. $CO_2$ emisioa (gr/km) 130etik 223ra.
Giauto Arrasate
Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
Giauto Bergara
Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA